



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 18a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da N-121-A errepidean egiten ari diren hobekuntza lanetan bidegorri bat egitea sar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Apezpiku Batzarren Batzorde Iraunkorrek eginiko adierazpen politikoak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Laguntza Bidezko Ugalketa Zerbitzua sortzeko orain arte eginiko jardueri eta horretarako zehaztutako epeei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (6. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzen dituen irizpideei buruzkoa, babesturiko etxebizitza guztien gainean lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeke, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (7. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den eskatutako informazioa ematen Portugalia/TAP hegazkin konpainiaren eta SPRIN sozietate publikoaren arteko hitzarmenari buruz, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (7. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak txirla txinatarraren izurriaren arazoa konpontzeko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Beriaingo kontsultategiko toki fisikoa eta zerbitzu kopurua handitzeko, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (8. or.).
- Galdera, jakiteko zeintzuk diren arrazoiak Vinsaren bitartez etxebizitzak errentan jartzeko baldintzak arautzen dituen urtarilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren edukia justifikatzeko. Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (9. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 eperako jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (9. or.).

- Galdera, Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, ur-amilen ubide bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Getzeko Ordokiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publiko bat ustiatzeari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Burgiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Tuterako industrialde berrian eginiko jarduerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008an enkargatu nahi dituen proiektuei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008an erosi nahi dituen lursailei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian kokatuko den zerbitzuetarako eraikinean obra garrantzitsuak egiteari buruz Nasuinsaren jarduera programan eginiko aipamenari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2007an gauzatutako proiektu berriek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2007an gauzatutako urbanizazio lanek eta sinatutako hitzarmenek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nasuinsak Rocaforte industrialdea handitzeko egin dituen jarduerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Deikaztelu eta Artaxoako industrialdeetan eginiko eta egin beharreko jarduerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nasuinsak zer jarduera egiteko asmoa duen Getzeko Ordokiko industrialdean, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Iruñerriko eremu handietarako industrialdeko lanak egite aldera 2007an gauzatu diren jarduerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Vianako industrialdeari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko Izize, Montes del Cierzo, Buñuel eta beste industrialderen batean lan osagarriak eginen diren, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Izizeko industrialdeko lan osagarriari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (25. or.).
- Galdera, hiru udalen ekimenari erantzunez 95.000 metro koadro eskaintzeari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (25. or.).
- Galdera, 2007an saldutako lursail industrialek eta orubeek egiten duten metro koadro kopuruari eta horien lortutako guztizko zenbatekoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Montes de Cierzo industrialdean eginen diren lan osagarriari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Buñuelgo industrialdean eginen diren lan osagarriari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008rako aurreikusita dituen urbanizazio lanei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (28. or.).

- Galdera, A-12 autobian animaliak galtzadara sartzegatik izaten diren istripuei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginiko bidaiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
- Galdera, iragan abenduaren 1ean egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Galdera, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan lurzoru industrial saltzeaz egiten den aipamenari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (31. or.).
- Galdera, Navarra de Suelo Industrial S.A.k galera eta irabazien kontuan lursailen salmentagatik izandako guztizko dirusarrerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (31. or.).
- Galdera, 2007an lan kontratuen eteteak ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako enpresei eta kaltetutako langile kopuruari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (32. or.).
- Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Gobernuak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (33. or.).
- Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Nasuinsak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (33. or.).
- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (35. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (35. or.).
- Galdera, SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (36. or.).
- Galdera, Avantius eta Asigna aplikazioei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (36. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa. Izendapena (38. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 2/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (39. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidean egiten ari diren hobekuntza lanetan bidegorri bat egitea sardezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepidean egiten ari diren hobekuntza lanetan bidegorri bat egitea sardezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa

aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

N-121-A errepideko zenbait zatitan hobetze lanak egiten ari dira une honetan, bai Nafarroako zatian bai Gipuzkoakoan. Gipuzkoako Aldundia Enderlatsako zubitik mugarainoko bidegorria eraikitzen ari da berari dagozkion hobetze lanetan. Nafarroako Gobernua egiten ari den proiektuan, ordea, ez da jasotzen aipatu bidegorria eraikitzea, eta hartara bidegorri horrek ez du jarraitutasunik izanen Enderlatsatik gure erkidegora.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121-A errepidean egiten ari diren hobekuntza lanetan bidegorri bat egitea sardezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da arbuia ditzan Espainiako Apezpiku Batzarraren Batzorde Iraunkorrek eginko adierazpen politikoak.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita arbuia ditzan Espainiako Apezpiku Batzarraren Batzorde Iraunkorrek eginko adierazpen politikoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Eliza katolikoaren Apezpiku Batzarrak azken hilabeteotan jendaurrean etengabe izan dituen esku-hartzeek eta adierazi dituen jarrera politikoek indar politiko demokratiko gehienek kritikak jaso izan dituzte.

Esku-hartze horietan azkena izan da Espainiako Apezpiku Batzarraren Batzorde Iraunkorrek urtarrilaren 31n atera zuen oharra, martxoaren 9ko hauteskunde orokorrak direla eta; ohar haren bidez, Eliza Katolikoaren hierarkiak alderdi politiko jakin baten aldeko botoa eskatu zuen modu inplizitu batez eta terrorismoaren auzia politikoki manipulatu zuen.

Antza denez, elizak aise ahazten du luzaroan egin duela Espainiako Estatuaren eta ETA erakun-

de terroristaren arteko bitartekari lana, esaterako ETAk 1998an eman zuen su-etenean, José María Aznar Espainiako Gobernuko lehendakari zelarik. Demokrazia ez dago eta ez da egon arriskuan Espainian, eta hortaz onartezinak dira eliza-hierarkiak Estatuak botere publikoen aurka egin dituen salaketak, horiek arbuiaitzeko indar demokratiko guztien batasuna eskatzen dutenak.

Botere publikoek ezin dute onartu Eliza Katolikoaren hierarkiaren ikasbide ez politiko ez moralik; izan ere, Eliza Katolikoa ahaleginak egiten ari da herriaren borondatez hautatutako botere demokratikoa desegonkortzeko eta zuzenean aurkatzeko, eta bereziki aurkatzeko ari da gizarte nafarrantzat nahiz espainiarrantzat herritarren eskubideei eta norbanakoaren askatasunei dagokienez aurrerabidea ekarri duten legeak, hala Nafarroako Parlamentuak nola Gorte Nagusiek onetsiak.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditzan Espainiako Apezpiku Batzarraren Batzorde Iraunkorrek urtarrilaren 31n kaleratu zuen oharrean eginko adierazpen politikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela botere publiko guztiek sustatzea behar diren neurriak Estatuaren akonfesionaltasuna bermatzeko, eta besteak beste ondokoak:

a. Vatikanokiko akordioak salatu eta berriz aztertzea.

b. Erljioa eskoletatik ateratzea eta hezkuntza-hitzarmenen politika berriz aztertzea.

c. Elizen autofinantzaketa, dituzten ekonomia-eta zerga-pribilegioak berriz aztertzea.

d. Eremu publikoetatik -eskolak, ospitaleak, erakundeak eta abar- erlijio-sinboloak kentzea.

e. Erregelamendu laiko berriak ezartzea administrazio eta erakunde publikoetako inaugurazio, kargu hartze eta gisakoetarako prozeduran.

f. Apostasiaren erregistroa ireki eta arautzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

F saila:
GALDERAK

Galdera, Laguntza Bidezko Ugalketa Zerbitzua sortzeko orain arte eginiko jardueri eta horretarako zehaztutako epeei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Laguntza Bidezko Ugalketa Zerbitzua sortzeko orain arte eginiko jardueri eta horretarako zehaztutako epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2008rako aurrekontuetan kontusail bat onetsi zen Laguntza Bidezko Ugalketa Zerbitzua sortzeko Nafarroan.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer egin da orain arte zerbitzu hori sortzeko eta zer epetan sortuko da?

Iruñean, 2008ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Asun Fdez. de Garaialde

Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzen dituen irizpideei buruzkoa, babesturiko etxebizitza guztien gainean lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzen dituen irizpideei buruzkoa, babesturiko etxebizitza guztien gainean lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zuk zuzentzen duzun departamentuak zer irizpide erabiltzen ditu babesturiko etxebizitzak eskualdatzen direnean lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko? Zein da jarduketaren bolumena, eta etxebizitza eskualdatu eta deskalifikatuen zer ehuneko egiten du?

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko zergatik ez den eskatutako informazioa ematen Portugalia/TAP hegazkin konpainiaren eta SPRIN sozietate publikoaren arteko hitzarmenari buruz.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den eskatutako informazioa ematen Portugalia/TAP hegazkin konpainiaren eta SPRIN sozietate publikoaren arteko hitzarmenari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Ingurumen, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zaio ematen parlamentari honi Portugalia/TAP hegazkin konpainiaren eta SPRIN sozietate publikoaren arteko hitzarmenari buruz eskatu duen informazioa?

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak txirla txinatarraren izurriaren arazoa konpontzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak txirla txinatarraren izurriaren arazoa konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean:

Nafarroako zenbait lur ureztatutan txirla asierra agertu da -txirla horren ingurumen- eta ekonomia-eragina zebra muskuiluarenaren antzekoa da, nahiz eta ugaltzeko gaitasun txikiagoa izan-, eta horrek alarma piztu du nekazarien artean. Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer neurri hartuko ditu departamentuak txirla asiarraren izurriaren arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Beriaingo kontsultategiko toki fisikoa eta zerbitzu kopurua handitzeko.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak dituen asmoei buruzkoa, Beriaingo kontsultategiko toki fisikoa eta zerbitzu kopurua handitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer asmo ditu Nafarroako Gobernuak Beriaingo kontsultategiko toki fisikoa eta zerbitzu kopurua handitzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko zeintzuk diren arrazoiak Vinsaren bitartez etxebizitzak errentan jartzeko baldintzak arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren edukia justifikatzeko.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zeintzuk diren arrazoiak Vinsaren bitartez etxebizitzak errentan jartzeko baldintzak arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren edukia justifikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer arrazoik justifikatzen dute Vinsaren bitartez etxebizitzak errentan jartzeko baldintzak arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letraren edukia?

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 eperako jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren

arteko 2005-2007 eperako jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Gure gizartearen kezkarik handienetako bat da etxebizitza egoki bat lortzea. Hortaz, administrazioek euren artean koordinatzeko tresnak ezarri behar dituzte, hirigintza arloan politika eraginkor bat abiarazte aldera, errentan emateko nahiz saltzeko etxebizitza berriak eraikitzea eta alde zaharrak berpiztea helburu.

Iruñerriari dagokionez, koordinazio planak gizartearen eskariari erantzuteko ezinbesteko tresna dira inondik ere. Halatan, garrantzitsua da plan horien alderdi guztiak bete daitezen, etxebizitza arloko politikak behar-beharrezkoak dituelako etxebizitzaren arloko arazo guztiei erantzuten dizkien neurri osagarriak.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 aldirako jarduketa bateraturako plana 2005eko maiatzaren 18an sinatu zen.

2005 eta 2006an zehar kasuan kasuko programak zehaztu baziren ere, 2007an ez zen sinatu inolako programarik Nafarroako Gobernuak -Etxebizitza Departamentuaren bitartez- eta Iruñeko Udalak sinatu zuten etxebizitza arloko jarduketa plana garatzeko.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak galdera aurkeztu dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 aldirako jarduketa bateraturako plana -hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa- garatzea ahalbidetzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Esa eta Itoizko urtegien segurtasun planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Urtegiak nahiz herrietako biztanleentzat arriskua ekar dezaketen obrak egiten direnean, segurtasun eta larrialdi planak egin beharra dago, hustuketa ahalbidetuko duten tresnak eta jarduketak ezartzeko hondamendirik edo istripurik gertatzen bada.

Zangozak eta bertako biztanleek bi arrisku potentzialak egin behar diote aurre, bi urtegiaren arteko arrisku-eremuan egoteagatik: Esa eta Itoitz.

Hortaz, bi segurtasun plan bereizi eta koordinatu egon beharko lirateke.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena: Egiten al du Nafarroako Gobernuak aipatu segurtasun planen taxutze eta ezartze prozesuaren jarraipenik?

Bigarrena: Zertan da Itoizko urtegiaren segurtasun planaren taxutzea?

Hirugarrena: Zer parte-hartze izan du Nafarroako Gobernuak plan hori taxutzean?

Laugarrena: Zer erakunderekin koordinaturik jardun du Nafarroako Gobernuak?

Bosgarrena: Adierazi zer epetan bukatuko den aipatu plana eta noiz egonen den bukatuta aipatu planeko azpiegitura eta dispositiboan ezartzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Zangozan hirigintza arloko aholkularitza bulegoa jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak herrietan hirigintza arloan aholku emateko bulegoak jartzeari buruzko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion. Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena: Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Zangozan halako bulegorik jartzeko?

Bigarrena: Zein tokitan du bulegoa jartzeko asmoa? Helbidea.

Hirugarrena: Zehaztu lokala egokitzeko epeak eta zein egunetan jarriko den zerbitzua abian.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion. Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena: Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Zangozan IAT zerbitzu bat jartzeko?

Bigarrena: Zein tokitan du zerbitzua jartzeko asmoa? Helbidea.

Hirugarrena: Zehaztu lokala egokitzeko epeak eta zein egunetan jarriko den zerbitzua abian.

Laugarrena: Gaur arte egin diren izapideak.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ur-amilen ubide bat eraikitzekeo proiektuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, ur-amilen ubide bat eraikitzekeo proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan legegintzaldian jakin ahal izan zenez, bada proiektu bat, zeinean murgilduta baitaude Aragoiko Soseko Udala eta Nafarroako Xabier eta Zangozakoak, ur-amilen ubide bat eraikitzekeo. Aurreproiektua Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak prestatu zuen, eta horretaz gain proiektuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa ere hartu zuen.

Horri guztiari buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena: Zertan da, kudeaketari dagokionez, proiektua?

Bigarrena: Nola finantzatuko da proiektua?

Hirugarrena: Proiektuaren finantzaketaren zer ehuneko hartuko du bere gain Nafarroako Gobernuak?

Laugarrena: Zer asmo dago proiektua betetze-ari buruz?

Bosgarrena: Zer zuzemen egin ditu Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak udal horiekin?

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Navarra de Suelo Industrial, S.A.ren Jarduketa, Inbertsio eta Finantza Programaren Oroitidazkian, zeina Nafarroako 2007ko Aurrekontu Orokorren Proiektuan aurkeztu baitzen, lursailak erostea azaltzen zen helburuen artean, 3,5 milioi euroko baliokoak hain zuzen.

a) Zenbat euro egiten dute azkenean, guztira, 2007an erositako lursailek?

b) Erositako lursail horien zerrenda jaso nahi dugu, horien azalera, bakoitzaren kostua eta zein helburutarako erosi diren zehaztuta.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 2006ko ekitaldi fiskalean sozietateen gaineko zerga dela-eta enpresetatik jasotako zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- 2006ko urte fiskalean, zenbat diru jaso da enpresetatik –bereiz bitez Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legeko 50. artikulua txikitzat jotzen dituen enpresen datuak eta artikulua horren arabera %35eko karga-tasa ordaindu behar dutenak– sozietateen gaineko zerga dela eta?

2.- Zein izan da enpresen batez besteko zerga-tasa efektiboa –bereiz bitez Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legeko 50. artikulua txikitzat jotzen dituen enpresen datuak eta artikulua horren arabera %35eko karga-tasa ordaindu behar dutenak, sozietateen gaineko zergaren oinarria erreferentzia hartuta?

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Getzeko Ordokiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa.

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Navarra de Suelo Industrial, S.A.ren Jarduketa, Inbertsio eta Finantza Programaren Oroitidazkian, zeina Nafarroako 2008ko Aurrekontu Orokorren Proiektuan aurkeztu baitzen, helburuen artean azaltzen zen hitzarmenak eta urbanizazio lanak egitea, 39 milioi euroko baliokoak hain zuzen.

a) 2008an zer urbanizazio lan egiteko asmoa du Nasuinsak? Zer aurrekontu du horietako bakoitzerako?

b) 2008an zer hitzarmen egiteko asmoa du Nasuinsak? Zer aurrekontu du horietako bakoitzerako?

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, A-12 autobian animaliak galtzadara sartzegatik izaten diren istripuei buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, A-12 autobian animaliak galtzadara sartzegatik izaten diren istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galderaren zioak

Donejakue bideko autobia (A-12) 2006ko irailean jarri zen osorik zerbitzuan, eta hartara denbora nahiko iragan da harrezkero, autobia horren funtzionamendua alde gutxietatik aztertzeko.

Orain dela gutxi, ordea, autobiatik dabiltzan gidarien segurtasunean eragina duten zenbait akatsen berri izan dugu, afera oso garrantzitsu batean hain zuzen ere. Antza denez, Bideko Autobian mota guztietako animaliak sartzen dira, eta istripu ugari eragiten dute, nahiz eta autobiak

segurtasun-sareak izan animaliak bertara sar ez daitezten.

Galderaren testua

1. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jakin nahi du Herri Lan Departamentua zenbateraino kontrolatzen ari den Bideko Autobien sozietate emakida-hartzailea afera hori dela eta, A-12 autobian animaliak sartzeagatik gertatzen ari diren istripuak ekidite aldera.

2. Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu departamentuak, horri dagokionez A-12 autobien sozietate emakida-hartzaileari begira?

3. Bideko Autobia'n gertatu diren gisa horretako istripuetan, nork hartzen ditu bere gain istripu-eraginez kaltetutako gidarien kalte-ordain nahiz bestelako eskaerak?

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: José María Vázquez Royo

Galdera, Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginiko bidaiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginiko bidaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek jakin ahal izan duenez, Nafarroako Gobernuaren ordezkari batek bidaia bat egin du, Iruñeko Udalaren eta Merkataritza Ganberaren ordezkari batekin batera, antza denez, Estatu Batuetan Nafarroako produktu jakin batzuk ezagutarazteko xedearekin.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena: Aipatu sustapen-bidaian joan den Nafarroako Gobernuko ordezkari osatu duten pertsonak.

Bigarrena: New Yorkera eta Miamiara eginiko bidaiarako jarritako helburuak eta lortu direnak.

Hirugarrena: Egin diren zuzemenak, harremanak eta bilerak eta zer ekitalditan parte hartu duen aipatu ordezkariak.

Laugarrena: Bidaiaren aurrekontu xehatua eta bidaiaren gastuaren betetze erreala, xehatua.

Iruñean, 2008ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, iragan abenduaren 1ean egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, iragan abenduaren 1ean egin ziren Gazteen eta Haurren jaialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Eledun honek galdera bat sartu zuen erregistroan Nafarroaren Egunaren ospakizunen karietara, eta Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Alberto Catalán Higuera jaunak, galdera osorik erantzun

ez bazuen ere, hauxe baieztatu zuen erantzunean: "iragan abenduaren 1ean Gazteen Jaialdia egin zen Iruñean, Nafarroaren Egunaren ospakizunen karietara, eta hartan nazioartean itzala duten zenbait artistak" musika-kontzertua eman zuten.

Erantzun horretan adierazten zenez, kontzertua batera sustatu zuten Nafarroako Kutxak eta Nafarroako Gobernuak -beste horrenbeste gertatu zen haur-jaialdiaren kasuan-, eta Nafarroako Gobernuaren ekarpena 190.000 eurokoa izan zen.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena: zenbat diru jarri zuen Nafarroako Kutxak aipatu jaialdiak sustatzeko.

Bigarrena: bi jaialdi horien kostu osoa, zehaztuta zenbat kobratu zuen artista bakoitzak edo ikuskizun bakoitzak.

Hirugarrena: jaialdi horietako bakoitzean egon zen ikusle kopurua.

Laugarrena: jaialdi horietako bakoitzean saldu zen sarrera kopurua eta bildu zen dirua.

Bosgarrena: bidalitako gonbit kopurua, nori bidali zitzaion zehaztuta.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan lurzoru industrialia saltzeaz egiten den aipamenari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan lurzoru industrialia saltzeaz egiten den aipamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan, dirusarreraren atalean, lurzoru industrialia saltzetik 819.790 euro lortuko direla aipatzen da.

a) Azkenean, zenbat diru lortu da guztira kontzeptu hori dela eta?

b) Saldu diren lursailen zerranda jaso nahi dugu, horietako bakoitza non dagoen, zer azalera duen eta zer jarduera izanen duen zehaztuta.

Iruñean, 2008ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Navarra de Suelo Industrial S.A.k galera eta irabazien kontuan lursailen salmentagatik izandako guztizko dirusarrerei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Navarra de Suelo Industrial S.A.k galera eta irabazien kontuan lursailen salmentagatik izandako guztizko dirusarrerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin doan dokumentazioan, Navarra de Suelo Industrial, S.A.ren galera eta irabazien kontuan zenbatesten da ezen 2007-12-31n

25.719.173 euro lortuko zirela lursailak saltzeagatik.

a) Azkenean, zenbat diru lortu da guztira kontzeptu hori dela eta?

b) Saldu diren lursailen zerrenda jaso nahi dugu, horietako bakoitza non dagoen, zer azalera duen eta zer jarduera izanen duen zehaztuta.

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, 2007an lan kontratuen eteteak ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako enpresei eta kaltetutako langile kopuruari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 2007an lan kontratuen eteteak ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako enpresei eta kaltetutako langile kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren web orrian enplegu-erregulazioko espedienteetatik heldu diren lan kontratuen etetei eta hutsaltzei buruzko zenbait taula argitaratzen dira.

a) Lan kontratuen eteteak ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek zer enpresa ukitu dute 2007an? Zein izan da enpresa horietako bakoitzean kaltetutako langile kopurua?

a) Lan kontratuen hutsaltzeek ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek zer enpresa ukitu dute 2007an? Zein izan da enpresa horietako bakoitzean kaltetutako langile kopurua?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Gobernuak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, industrialdeei buruzkoa eta Gobernuak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan, dirusarreraren atalean, lurzoru industrial saltzetik 1.599.188 euro lortuko direla aipatzen da.

a) Zer industrialdetan saldu nahi du lurzorua Gobernuak 2008an? Zenbateko azalera saldu nahi du horietako bakoitzean?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Nasuinsak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, industrialdeei buruzkoa eta Nasuinsak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin doan dokumentazioan, Navarra de Suelo Industrial, S.A. ren galera eta irabazien kontuan zenbatesten da ezen 2008-12-31n 36.406.241 euro lortuko direla lursailak saltzeagatik.

a) Zer industrialdetan saldu nahi du lurzorua Nasuinsak 2008an? Zenbateko azalera saldu nahi du horietako bakoitzean?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuari buruz -horren bidez ezartzen dira ziklo hori ematen duten zentroek bete behar dituzten baldintzak eta zikloaren hezkuntza

edukiak-, bai eta 28/2007 Dekretua dela-eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak egindako errekerimenduaren kariatara Nafarroako Gobernuak 2007ko urriaren 15ean hartu zuen erabakiari buruz:

1. Ikastetxeak kanpo geldituko dira baldin eta aipatu ziklo horretan ez badute gutxienez ere urte oso bateko hezkuntza-eskaintza egiten. Urte oso hori zer da, urte naturala ala ikasturtea? Ikasturtea baldin bada, zenbat irauten du ikasturte batek?

2. Ikastetxe batek urte oso bat eskaintzen baldin badu 0tik 3 urtera bitarteko zikloan, eta proposamen pedagogiko bat baldin badu, eta ikastetxe-ko langile guztiak kualifikatuak baldin badira, behartuta al dago foru dekretuan ezartzen diren gainerako baldintzak betetzera?

3. Nola gaituko ditu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak hiru urtetik beherako haurrak eskolatzen dituzten ikastetxeen ikuskatzaileak?

4. Demagun ikastetxe batek urte oso batera heltzen ez den hezkuntza eskaintza duela 0tik 3 urtera bitarteko zikloan eta foru dekretuko baldintza guztiak betetzen dituela. Zer egingen du halako kasu batean Hezkuntza Departamentuak?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Turismo kontseilariak erantzun dezan: Erantzuna idatziz igortzea eskatzen dugu.

Kultura Departamentuak ba al du irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik?

Ba al dago inolako lankidetzarik Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarearen artean, bien artean Nafarroako ikasleengan irakurzaletasuna sustatze aldera?

Departamentuak zer ekintza zehatz garatzen ditu irakurzaletasuna sustatzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak erantzun dezan: Erantzuna idatziz igortzea eskatzen dugu.

Hezkuntza Departamentuak ba al du irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik, Departamentuko zerbitzu guztietan zeharkakotasunez eragiten duenik?

Ba al dago inolako lankidetzarik Kultura Departamentuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarearen artean, Nafarroako ikasleen artean irakurzaletasuna batera sustatze aldera?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, SOS Nafarroaren Positron kudeatzaile informatikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, SOS Nafarroako kudeatzaile informatikoari buruzko ondoko galdera

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sistemaren eginkizunak zertan diren jakin nahi dut. Horra:

1.- Positron sisteman osorik integratu al da lehen erabiltzen zen komunikazio sistema? Noiztik? Integratu ez baldin bada: Zergatik?

2.- Zertan dira autobietako SOS zutabeen bidezko komunikazioak? Noiztik? Hala ez baldin bada: Zergatik?

3.- Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ibilgailuetako datu-baseak eskura al daude? Noiztik? Hala ez baldin bada: Zergatik?

4.- Telefono bidezko mezuek Positronen barrenean informazio orokorrak automatikoki kudeatzeko eginkizuna, erabilgarri al dago? Noiztik? Ez baldin badute funtzionatzen: Zergatik?

5.- Positron sisteman integraturik al dago zaharren tele-laguntza? Noiztik? Hala ez baldin bada: Zergatik?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Avantius eta Asigna aplikazioei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Avantius eta Asigna aplikazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zein da Avantius eta Asignaren arteko integrazioari buruzko azterlanaren emaitza eta balorazioa?

2.- Aurreikusitako edo ezarritako garapen gehiago egiteko asmorik ba al dago? Hala bada, horiei buruzko xehetasunak jaso nahi ditugu.

3.- Nork egiten du Avantius, Asigna eta gainon-

tzeko aplikazioen lehen mailaren euskarri funtzional eta teknikoa? Foru administraziokoa ez den enpresa batek egiten baldin badu, zehaztu datuak eta zerbitzuaren gastua edo zenbatekoa? Eta 2. mailako euskarri funtzionalarena?

4.- Zein izan da, 2003tik gaur arte, aplikazioaren mantentze-lanen zerbitzuaren kostua?

Iruñean, 2008ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amaituta dago Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat txanda irekian betetzeko oposizioa; deialdia Mahaiak 2007ko maiatzaren 15ean hartutako erabaki bidez egin zen, eta argitaratu zen 2007ko maiatzaren 18ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2007ko ekainaren 11ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Legebiltzarreko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an onetsi zuen epaimahai kalifikatzaileak Sergio Zozaya Garralda jaunaren alde igorritako izendapen proposamena; proposamen hori 2008ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du, adieraziz interesdunak aurkeztu dituela deialdiko

7. oinarrian eskatutako agiri guztiak; beraz, deialdiko 8. oinarriarekin bat, ERABAKI DA:

1. Sergio Zozaya Garralda jauna Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, administrazio-kudeaketako teknikari hain zuzen, teknikarien kidegoan eta teknikari diplomatuen eskalan.

2. Erabaki hau jakinarazten zaionetik aurrera hilabeteko epean hartu beharko du interesdunak lanpostuaren jabetza.

3. Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, eta igortzea Zerbitzu Orokorretako buruari eta Kontuhartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako buruari.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 2/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitarara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Komunitateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan tributuak ezartzeko duen ahalmena erabiliz, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluekin bat, Estatuan unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko eta formazko arau berak aplikatu behar ditu. Horregatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari

buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegiak araubide arrunteko lurraldean izan duen aldaketara egokitu behar ditu.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, lurralde arrunteko tributu araubidearen aldaketa batek behartzen badu Foru Komunitatean Estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsaz eta formaz berdinak, aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela. Legegintzarako ahalmen hori Estatuko tributuen aldaketak argitaratzen direnean uzten ahal da Nafarroako Gobernuaren esku.

2008rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 51/2007 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, bi helburu dituela. Lehenik, itsas zabalean nabigatzen duten ontzien hein bateko eta erabateko pleitamendu-eragiketak salbuestearren, nazioarteko itsasketa ukitzen dutenak. Bigarrenik, 44. artikuluko 2. idatz-zatia indargabetzearren, alegia, inportazioei eta inportazioekin parekatutako eragiketei kenkarirako eskubidea sortzeko orotariko arauak aplikatuko zaizkie, eskubide hori kenkariaren xede diren kuotaen sorrarazpena egitean sortuko baita.

Hori guztia dela-eta, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, beharrezkoa da tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 54. artikuluko 1. idatz-zatiarekin bat.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko lurralde arrunteko araubideko arauen ondorioekin bat etor daitezzen, alegia, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2008ko urtarrilaren 22ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat. 19. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerroaldea:

“1. Ontziak aurkeztu, eraiki, eraldatu, konpondu, mantendu, hein batean edo erabat pleitaratu eta alokatzeko eragiketak, ondoren aipatzen direnak:”

Bi. 19. artikuluko 1. idatz-zatiko Bigarren puntuko b) letrako lehen lerroaldea:

“b) Ontzia aurkeztu, eraiki, eraldatu, Europar Batasunaren barrenean eskuratu, inportatu, osorik edo hein batean pleitatu edo alokatzen denean edo aurreko 2. idatz-zatiko helburuekiko desafektazioa gertatzen denean, aipatu eragiketa horiek gauzatzen direneko urte naturala, non eta urte natural horretako lehenbiziko seihilekoaren ondotik egiten ez diren, zeren eta horrela bada, kontuan hartu behar den denboraldian urte natural hori eta hurrengoa sartuko baitira.”

Xedapen indargabetzaile bakarra. Agindu bat indargabetzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 44. artikuluko 2. idatz-zatia indargabetzen da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	